cristina enea
FUNDAZIOA

# The Wildlife Comedy
# erakusketako irudien enkantea

*The Wildlife Comedy erakusketa osatzen duten 62 irudietatik 41 martxora arte iraungo duen enkante baten bidez lortu ahal izango dira. 41 argazki dira, gehienak formatu handikoak, material desberdinetan eskuragarri daudenak, nazioarteko profesionalek eginak. Bildutako diru guztia Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkarterako eta Save Wild Orangutans elkarterako izango da.*



**Donostian, 2022ko otsailaren 8an.-** 62 irudik osatzen dute **The Wildlife Comedy** erakusketa, eta martxoaren 13ra arte egongo da ikusgai Cristina Enea Fundazioaren egoitzan. Animalien munduaren alderik ustekabekoena eta barregarriena erakusten duen erakusketa da, non espezie ezberdinetako animaliak ustekabeko jarrera eta egoeretan aurkezten zaizkigun. *"Bisitari kopuruai dagokionez arrakasta handia izaten ari den erakusketa da, batez ere familien artean, eta gehienoi irribarrea ateratzen digu"*, azaldu du Eneko Calvo Cristina Enea Fundazioko erakusketa-proiektuen arduradunak. Ingurumen Baliabideen Etxeko erakusketan dauden 62 irudietatik 41 Cristina Enea Fundazioak abian jarri duen enkante baten bidez eskura daitezke.

*"Irudi guztiak kalitate handiko materialetan inprimatu dira, besteak beste egurra, biniloa edota paper fotografikoa, Grupo Delta esperientzia eta ospe handiko inprimatze-enpresa donostiarrarekin izan dugun lankidetzari esker, eta iruditzen zitzaigun erakusketa amaitutakoan argazki horiei irteera bat eman behar geniela, biltegi batean gorde aurretik"*. Horrela, joan den urtarriletik, 41 irudi enkantean eskura daitezke.

Metodologia oso sinplea da. Erakusketa bisitatzen duten guztiek enkantean jar daitezkeen irudiak biltzen dituen liburuxka bat jasoko dute. Liburuxka horren bidez, nahi izanez gero, gustukoen duten argazkiagatik diru-kopuru bat eskaini ahal izango dute eta hautestontzi batean utzi, beren datuekin batera. *"Erakusketa amaitzen denean, irudi*

*bakoitzeko eskaintza altuena irabazlea izango da, eta egin duenak etxera eraman ahal izango du argazkia*".

Calvok gaineratu duenez, bildutako diru guztia bi elkarterentzat izango da, bata Cristina Enea Fundazioak aukeratutakoa, eta bestea The Comedy Wildlife argazki-lehiaketaren antolatzaileak hautatutakoarentzat. "*Cristina Enea Fundaziotik Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkartea aukeratu dugu, gure lurraldean egiten duten lanagatik; bigarren elkartea, berriz, Save the Orangutans izango da, planetan zehar animalia hori kontserbatzeko egiten ari den lanagatik*".

# Subasta de las imágenes de la exposición The Wildlife Comedy

*41 de las 62 imágenes que componen la exposición The Wildlife Comedy podrán obtenerse a través de una subasta que durará hasta el mes de marzo. Se trata de 41 instantáneas, la mayoría de gran formato, disponibles en diferentes materiales, realizados por profesionales internacionales. Todo el dinero recaudado se destinará a la Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa y a la asociación Save Wild Orangutans.*



**Donostia / San Sebastián, 8 de febrero de 2022.-** Un total de 62 imágenes conforman la exposición **The Wildlife Comedy**, que se puede visitar hasta el próximo 13 de marzo en las instalaciones de Fundación Cristina Enea. Se trata de una exposición que muestra el lado más inesperado y gracioso del mundo animal, donde ejemplares de diferentes especies se nos presentan en actitudes y situaciones de lo más inesperadas. *"Es una muestra que está teniendo mucho éxito de asistencia, sobre todo entre el público familiar, y que a la mayoría nos saca una sonrisa"*, ha explicado Eneko Calvo, responsable de proyectos expositivos de Fundación Cristina Enea. De las 62 imágenes que alberga la exposición del Centro de Recursos Medio Ambientales, 41 se pueden obtener a través de una subasta que ha puesto en marcha Fundación Cristina Enea.

*"Todas las imágenes se han impreso en materiales de gran calidad, como madera, vinilo o papel fotográfico, gracias a la colaboración que hemos tenido con Grupo Delta, empresa donostiarra de impresión de gran experiencia y prestigio, y nos parecía que una vez finalizada la muestra, debíamos dar una salida a esas fotografías, antes de guardarlas en un almacén"* cuenta Calvo. Así, desde el pasado mes de enero, 41 de las imágenes se pueden adquirir en subasta.

La metodología es muy simple. Todas las personas que visiten la exposición recibirán un folleto en el que aparecen las imágenes susceptibles de ser subastadas, a través de la cual, si lo desean, podrán ofrecer una cantidad de dinero por la fotografía que más les

guste y depositarla en una urna, junto con sus datos. *"Cuando finalice la muestra, la puja más alta de cada imagen será la ganadora, y la persona que la haya hecho, podrá llevarse la fotografía a casa"*.

Calvo ha añadido que todo el dinero recaudado se destinará a dos asociaciones, una escogida por Fundación Cristina Enea, y la otra elegida por la organización del concurso fotográfico The Comedy Wildlife, quien ostenta la autoría de las imágenes. *"Desde Fundación Cristina Enea hemos elegido a la Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa, por la labor que desempeñan en nuestro territorio, mientras que la segunda asociación será Save the Orangutans, quien realiza labores de conservación de este animal, a lo largo y ancho del planeta"*.